Etxebizitza, bermatu beharreko eskubidea

STEILASek eta **Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak** elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

steilas

EUSKAL HERRIKO
ETXEBIZITZA SINDIKATUEN SAREA

Etxebizitza, bermatu beharreko eskubidea

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

Norentzat: Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleentzat.

Esparrua: Hego Euskal Herria.

Iraupena: Bi saio.

steilas.eus

Araba
✆ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia
✆ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa
✆ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa Garaia
✆ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

EUSKAL HERRIKO ETXEBIZITZA SINDIKATUEN SAREA

Araba
✆ 689 659 903
harrera_ab@riseup.net

Bizkaia
✆ 602 404 879
azetxebizitzataldea@riseup.net

Bizkaia
✆ 654 821 486
batuelkar@gmail.com

Gipuzkoa
✆ 722 672 459
etxebizitza.saretxe@gmail.com

Nafarroa Garaia
✆ 632 999 496
harituelkarlaguntzasarea@gmail.com

Aurkibidea



1. Aurkezpena eta helburua 4

2. Justifikazioa 4

3. Ikuspegi transfeminista eta intersekzionala 5

4. Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarea 6

5. STEILAS, Euskal Eskola Publikoaren Aldeko 8

6. Oinarria eta kontzeptu nagusiak 9

6.1. Oinarria 9

6.2. Kontzeptu nagusiak 9

7. Helburuak, konpetentziak eta metodologia 10

7.1. Helburu didaktikoak 10

7.2. Oinarrizko konpetentziak 10

7.3. Metodologiarako orientabideak 10

8. Unitate didaktikoak etapaka 11

Haur Hezkuntza 11

1. Saioa: Zer behar dugu ongi bizitzeko? 11

2. Saioa: denok ez dugu etxe bat 12

Lehen Hezkuntza 14

1. Saioa: Zer behar dugu bizimodu duin bat garatzeko? 14

2. Saioa: Denok bizitzeko moduko auzoa 15

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 17

1. Saioa: Etxebizitza eskubidea ala negoziorako etxebizitza? 17

2. Saioa: Nola bermatu dezakegu etxebizitza eskubidea? 19

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa 21

1. Saioa: Etxebizitza arazoaren erroa 21

2. Saioa: Zein eraldaketa behar ditugu etxebizitza bermatzeko? 22

9. Eranskinak 25

10. Sindikatuen materiala 48

1. Aurkezpena eta helburua

Programazio didaktiko hau **STEILAS**, hezkuntza sindikatuaren, eta **Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarearen** arteko lankidetzatik sortu da, etxebizitza eskubidearen aldeko azaroaren 11ko greba dela eta. Aipatu sindikatuok bat gatoz etxebizitzari langileen bizi baldintzetarako elementu nagusi gisa heltzeko, eta hausnarketa kolektiboa bultzatzeko beharrarekin, etxebizitza krisiaren kausak ulertu eta benetako konponbideetarantz aurrera egin ahal izateko.

Helburua da ikasleek etxebizitza oinarrizko premiatzat hartzea, Euskal Herrian etxebizitza eskuratzea eragozten duten faktoreak kritikoki aztertzea, etxebizitzaren eskubidearen aldeko mugimenduen aldarrikapenak ezagutzea eta arazoaren aurrean har daitezkeen neurriak edo esku hartzeak identifikatzea.

Lanketa ikuspegi kritiko batetik planteatzen da, atxikimendu ideologikoak ekidin nahian. Kontzeptuen ulermena, argudioen kalitatea, analisi kritikoa, informazioaren erabilera eta proposamenak egiteko gaitasuna izango dira aztergai.

Bi zutabe nagusitan landuko da gaia, alde batetik, etxebizitzaren arazoa eta, bestetik, egoera konpontzeko proposamenak.

2. Justifikazioa

Kalitatezko etxebizitza eskuratzeko zailtasuna ez da arazo indibiduala, oinarrizko beharra negozio espekulatibo eta errentagarri bihurtzen duen ereduaren ondorioa baizik. Errealitate horren aurrean, pertsona guztiendako bermatutako kalitatezko etxebizitza aldarrikatzen dugu, espekulatzaileen desjabetzea, espekulazioaren debekua eta etxebizitzen banaketa arrazionala eta bidezkoa, langile klasearen beharretara egokitua. Era berean, premiazko neurriak defendatzen ditugu, hala nola, etxegabetzeak etetea eta etxebizitzen prezioak jaistea, arazoaren egiturazko kausak eraldatzeko beharra ahaztu gabe.

Ikastetxeek funtsezko zeregina dute gizarte borroka honetan. Ez dira errealitatetik isolatutako espazioak, baizik eta mundua ulertzeko, desberdintasunak zalantzan jartzeko eta mundua eraldatzeko tresnak eraikitzeko lekuak. Eskolak hausnarketarako, elkarrizketarako eta pentsamendu kritikorako guneak bermatu behar ditu, ikasleek bizi baldintza materialek beren eskubideei eta aukerei nola eragiten dieten azter dezaten. Ikasgeletan etxebizitza lantzeak etxebizitza prekarietatea norbanakoaren porrota delako ideia apurtzen laguntzen du, eta horren kausak sozialak, ekonomikoak eta politikoak direla ulertzea ahalbidetzen du. Aldi berean, ikastetxeek espazio demokratiko gisa duten zeregina indartzen du, gizarte justiziarekin, berdintasunarekin eta eskubide kolektiboen defentsarekin konprometituta baitaude.

Programazio honek hezkuntza etapa desberdinetara egokitutako jarduerak proposatzen ditu, oinarrizko premiak identifikatzeko, etxebizitza krisiaren kausak aztertzeko, balizko konponbideak eztabaidatzeko eta antolaketaren eta ekintza kolektiboaren garrantzia ezagutzeko. Hezkuntzak, berez, ez du etxebizitza larrialdia konponduko, baina ezin dio uko egin hura ulertzen laguntzeari, ezta kontzientzia kritiko eta kolektibo bat eraikitzeari ere.

Izan ere, heztea bidegabekeriak zalantzan jartzea ere bada, eta duintasunez bizitzea pribilegioa ez den gizarte bat defendatzea, pertsona guztientzako eskubide bermatua baizik.

3. Ikuspegi transfeminista eta intersekzionala

Etxebizitzaren krisiak modu desberdinean eragiten die biztanleei; izan ere, generoak, klase sozialak, jatorriak, administrazio egoerak, adinak, desgaitasunak edo genero identitateak baldintzatzen dute etxe duin eta segurua izatea. Horregatik, etxebizitzarako eskubideari ikuspegi transfeministatik eta intersekzionaletik heltzeak aukera ematen du dauden desberdintasunak identifikatzeko eta konponbide inklusiboetarantz aurrera egiteko.

Ikuspegi transfeministatik, funtsezkoa da etxebizitzaren eta zaintzaren arteko harremana aitortzea. Emakumeek* zeregin horien zati neurrigabe bat beren gain hartzen jarraitzen dute, eta horrek, lan prekarietatearekin eta etxebizitzaren kostu altuarekin batera, autonomia ekonomikoa eta pertsonala mugatu ditzake. Egoera horrek bereziki eragiten die familia amabakarrei eta indarkeria matxistaren ondorioz etxea utzi behar izan duten emakumeei*, haientzat funtsezkoa baita etxebizitza segurua eta eskuragarria izatea.

Ikuspegi intersekzionalak aukera ematen du desberdintasun mota ezberdinak nola konbinatzen diren ulertzeko. Migratuek eta arrazializatuek diskriminazioa jasan dezakete alokairuan; desgaitasuna dutenek, etxebizitza irisgarriak aurkitzeko zailtasunak dituzte; eta LGTBIQ+ kolektiboak, diskriminazio egoerak edo segurtasun eza. Halaber, diru sarrerekin, prekarietatearekin eta zaintza premiekin lotutako oztopo espezifikoei aurre egiten diete gazteek, adinekoek eta langile klaseak.

STEILASen eta **Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen sarearen** arabera, etxebizitza eskubide unibertsala da, publikoa, eta ez du gaitasun ekonomikoaren edo familia eredu jakin baten mende egon behar. Hori bermatzeko, gizarte premiei lehentasuna eman behar zaie interes ekonomikoen aurretik.

Ikuspegi hori zeharka landuko da unitate didaktikoetan, eta, horretarako, asmatutako kasuak, datu kontrastatuak, eztabaidak eta hezkuntza etapa bakoitzera egokitutako proposamenak aztertuko dira. Pentsamendu kritikoa, enpatia eta familia eta bizikidetza ereduen aniztasuna sustatuko dira, kaltetutako pertsonei errua botatzea edo ikasleak egoera pertsonal sentikorretan jartzea saihestuz.

Etxebizitza izateko eskubidea bermatzeak berekin dakar etxe duin eta seguru bat lortzea eragozten duten arazoei aurre egitea. Horregatik, pertsona guztientzako kalitatezko etxebizitzaren aldeko borroka, borroka transfeministatik, langile klasearen defentsatik eta gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baten eraikuntzatik bereizi ezina da.

4. Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarea

Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarea gaur egun 5 etxebizitza sindikatuk osatzen dute: **Auzoan Bizi** Etxebizitza Sindikatua Gasteizen, **AZET** eta **Batu** Etxebizitza Sindikatuak Bizkaian, **Saretxe** Gipuzkoan eta **Haritu**ren Etxebizitza Sindikatua Nafarroa Garaian.

Sarea osatzen duten sindikatuek oinarri politiko amankomunetan egiten dute lana eta jardun politikoa. Horrela, gure auzo eta herrietako beharretan oinarrituz, Euskal Herriko etxebizitza eskubidearen mugimendua eta borroka gorpuzten dituzte.

Euskal Herrian, etxebizitzaren arazoa gero eta gordinago eta bortizkiago azaleratzen da eta langile klasearen aurkako eguneroko indarkeria agerikoa da:

- Prezioen igoera ikaragarria (% 35 eko igoera Hego Euskal Herrian eta % 50 ekoa Ipar Euskal Herrian)
- Etxegabetze judizialak (20.000 baino gehiago azken hamarkadan)
- Kalkulaezinak diren ezkutuko etxegabetzeak, etxebizitzaren prezioaren igoerak eta higiezinen indarkeriaren mila aurpegik eragindakoak (horien ondorioak bereziki nabarmenak dira Hegoaldeko zein Iparraldeko kostaldeko eremuetan eta gune historikoetan)
- Etxerik gabeko pertsonen kopuruaren gorakada (milaka pertsona; eta goranzko joera du kopuru horrek).
- Higiezinen eta erakundeen arrazakeria (patera pisuak, errolda salerosketa, kontraturik ezin izatea edo laguntzarik ez jasotzea). Horiek eta gehiago dira etxebizitzaren merkantilizazioaren ondorio ukigarri eta materialak.

Etxebizitza merkantzia eta negozioa izatearen ondorioz, krisia aberastasun iturri bilakatu da gutxi batzuentzat, miseria gehienontzat. Horregatik, etxebizitza negozioa den bitartean inoiz ez da eskubide bermatua izango. Norabide horretan etxebizitza eskubidearen aldeko borrokak espekulazioa eta errentismoa jarri behar ditu jomugan. Horretarako, eta azaroak 11ko Greba Orokorrari begira egin den bezalaxe, erroko hiru transformazio mahaigaineratzen ditugu:

- **Espekulatzaileen jabetzak espropiatzea**, oinarrizko behar bat den etxebizitza gutxi batzuen eskuetan pilatzea ekiditeko.
- **Espekulazioa etetea**, etxebizitzei erabilera espekulatiboa eman nahi diotenen negozioa debekatuz.
- **Etxebizitza behar sozialen arabera antolatzea,** gure beharrak izan daitezen etxebizitza politikak diseinatzeko abiapuntua, eta ez irabazietan oinarritutako merkatua.

Etxebizitza sindikatuek azken urteetan Euskal Herrian egin duten ibilbideak berretsi du etxebizitza sindikalismoa gaur egun tresna baliagarria eta beharrezkoa dela klase autodefentsarako; izan ere, subjektu kolpatuenei antolatzeko, borrokatzeko eta beren bizi baldintzak defendatzeko aukera ematen die. Hori dela eta, etxebizitzaren aldeko borroka, borroka transfeminista eta antiarrazista ere badela aldarrikatzen dugu. Izan ere, langile guztiei ez die gatazka honek berdin eragiten; hala nola, arrazializatuei, migratuei, emakumeei* eta genero disidenteei.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

Horrekin batera, etxegabetzeak dira etxebizitzaren arazo gordinetakoak eta eskoletan bizi diren errealitate ugarirekin harreman zuzena dute. Etxebizitzaren arazo estrukturalak eragin sakona du familia eta perstonen bizitza sozial eta pertsonaletan eta horrek ondorio larriak dakartza hezkuntza arloan.

Guztiak esanda, Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarea eta bertan antolatuta gauden sindikatuok, Euskal Herrian etxebizitza eskubidearen aldeko mugimendua eraikitzeko lanean jarraitzen dugu, etxebizitza guztiondako eskubide bermatua izan arte.

EUSKAL HERRIKO ETXEBIZITZA SINDIKATUEN SAREA

Auzoan Bizi etxebizitza sindikatua

AZET ETXEBIZITZA SINDIKATUA

BATU Elkarlaguntza sarea

SARETXE Etxebizitza Sindikatua

SINDICATO de VIVIENDA ETXEBIZITZA SINDIKATUA NARITU

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

5. STEILAS, Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Hezkuntza Sindikatua

STEILAS Hego Euskal Herrian jarduten duen hezkuntzako langileen sindikatua da, hezkuntza sistema publiko, euskaldun, transfeminista, inklusibo eta kalitatezko baten alde egiten duena. STEILASen borroka, ordea, ez da langileen lan baldintzen hobekuntzetara mugatzen, hezkuntza eta gizarte eraldaketa lotzen dituen ikuspegitik jarduten baitu.

Hezkuntza ez dago errealitate sozialetik kanpo, desberdintasun sozialak zalantzan jartzeko, pentsamendu kritikoa garatzeko eta gizarte justuago bat eraikitzeko funtsezko eremua baita.

STEILASek langileen lan baldintzak hobetzeko, hezkuntza publikoaren baliabideak indartzeko eta hezkuntza komunitatearen eskubideak bermatzeko lan egiten du, mobilizazioaren, negoziazio kolektiboaren eta elkarlanaren bidez. Transfeminismoa, euskara, inklusioa eta gizarte justizia ditu ardatz, eta, ikuspegi horretatik, hezkuntza ezagutzak transmititzetik haratago doala sinesten du.

Etxebizitzaren egoera latz honek, bete-betean eragiten dio hezkuntzari. Ikasle askoren etxebizitzek ez dituzte bizitzeko baldintza minimoak betetzen, eta beste askoren familiek, ordaindu ezin dituzten kostuak asumitu behar izaten dituzte. Honek zaurgarritasun egoera muturrekoak sortzen ditu, hala nola, etxegabetzeak, bazterkeria soziala, desnutrizioa, etab. Horrez gain, behin behineko kontratuak dituzten hezkuntza langileek ere pairatzen dute prekarizazioa, alokairuen prezioak jasaten baitituzte, bai eta energiaren edo gasoilaren prezioen igoerak ere.

Guztion bizitza duinak bermatzeko, ezinbestekoa da hezkuntza sistema publiko sendo bat, segregazioa eta bazterkeria murrizten lagunduko duena. Erdigunean jarri behar dira hezkuntza, osasuna, zaintza eta gizarte zerbitzu publikoak, unibertsalak, doakoak eta kalitatezkoak, zeinak pertsonen ongizatea lehenetsiko duten inoren jatorri, etnia, diru sarrera, genero, adin edo dena delakoa baldintza izan gabe.

Horregatik, **STEILAS**ek zerbitzu publikoen aldeko aldarria egiteaz gain, hezkuntza komunitatean etxebizitzaren arazoari buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatzearen garrantzia azpimarratzen du. Etxebizitza oinarrizko eskubidea dela ulertzeko eta eskubide hori bermatzeko erroko aldaketen beharra irudikatzeko gaitasuna garatzea bilatzen du. Etxebizitza arazoaren atzean dauden arrazoi sozial, politiko eta ekonomikoak aztertzea eta koponbide kolektiboak kritikoki aztertzea ahalbidetu nahi du. Eta bidegabekerien aurrean elkartasuna eta antolakuntzaren dinamikak bultzatzen ditu.

Hezkuntza publikoa eta gainerako zerbitzu publikoak indartzea, etxebizitza duina bermatzea eta langileen eskubideak defendatzea ezinbestekoak dira pertsona guztiek bizitza duina izan dezaten.

6. Oinarria eta kontzeptu nagusiak

6.1. Oinarria

- Etxebizitza duina, segurua, irisgarria eta eskuragarria.
- Krisiaren azalpena ez dago erabaki indibidualetan soilik: soldatek, merkatuak, araudiak, jabetzaren banaketak eta politika publikoek eragina dute.
- Ikuspegi transfeminista eta intersekzionala: zaintzek, indarkeria matxistak, arrazakeriak, desgaitasunak, adinak, familia ereduak eta prekarietateak oztopoak sortzen ditu.
- Espekulazioaren eta etxebizitzaren erabileren azterketa kritikoa, botere edo interes desberdinak berdindu gabe.

6.2. Kontzeptu nagusiak

Etxebizitza: beharra eta eskubidea	Bizitzeko kalitatezko leku aproposa eta segurua funtsezkoak dira egunerokorako.
Erabileraren garrantzia edo balioa	Bizitzeko espazioa, deskantsatzeko, ikasteko eta bizimodua garatzeko.
Espekulazioa	Ondasun bat erosi eta denbora batera garestiago salduz, etekin ekonomikoaren eskuratzea helburu duen merkataritza edo finantza eragiketa da.
Rentismoa	Lehendik dauden ondasunen jabetzaren bidez diru sarrerak lortzea eta errentak kobratzea.
Etxegabetzea	Alokairu edo hipoteka bateko baldintzak ez betetzeagatik etxebizitza bat uztera behartzeko agindua eta horren exekuzioa.
Eskubidearen bermea	Eskubidea formalki aitortzeaz gain, eskubide hori egiazkoa izateko mekanismoak izatea.
Etxebizitza politikak	Etxebizitzaren eskuragarritasuna, kontserbazioa eta erabilera arautzeko neurriak, baliabideak, zerbitzuak eta erabaki publikoak.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

7. Helburuak, konpetentziak eta metodologia

7.1. Helburu didaktikoak

- Etxebizitza ongizateari eta eskubide sozialari lotutako oinarrizko premiatzat hartzea.
- Inguru hurbilean etxebizitza eskuratzeko zailtasunak identifikatzea.
- Etxebizitzaren erabilerak kritikoki bereiztea: bizitzeko vs iturri ekonomiko gisa erabiltzeko.
- Espekulazioaren eta errentismoaren kontzeptuak ulertzea.
- Prezioei, diru sarrerei, alokairuari eta emantzipazioari buruzko informazio erraza interpretatzea.
- Etxebizitza, soldatak, aukera berdintasuna, zaintzak eta emantzipazioa lotzea.
- Etxebizitzaren aldeko borrokaren aldarrikapen nagusiak ezagutzea eta egiturazko eraldaketarako neurriak bereiztea.
- Hego Euskal Herriko erakundeen eskumenak identifikatzea.
- Argudiatzea, entzutea, informazioa kontrastatzea eta proposamen kolektiboak egitea.

7.2. Oinarrizko konpetentziak

Oinarrizko konpetentziak	Nola landu
Hiritartasuna	Arazo sozialen, instituzioen eta parte hartzeen analisia.
Hizkuntza komunikazioa	Kasuen irakurketa, argumentazioa, eztabaida eta ahozko zein idatzizko adierazpena.
Matematika	Aurrekontuak, portzentaiak, prezioen alderaketak, grafikoen irakurketak...
Pertsonala eta soziala	Talde lana, enpatia, hausnarketa.
Digitala	Iturri ofizialetan bilaketa eta kontrastea.
Ekintzailetza	Proposamenen diseinua eta ondorioen aurkezpena.

7.3. Metodologiarako orientabideak

- Hurbileko galderetatik eta fikziozko adibideetatik abiatu, ikasleei haien familien egoerez hitz egitea eskatu gabe.
- Datu publikoak erabili, zer neurtzen duten eta nondik datozen azaldu eta ondorioak atera.
- Argudiatutako galdera eta desadostasunei lekua eman eta ikasleen iritzi politikoa ez ebaluatu.
- Testuak, zenbakiak, iraupena eta azken proiektua ikasleen adinera eta beharretara egokitu.
- Etxegabetze edo etxebizitza eskuratzeko zailtasunen aurrean, ez eskatu testigantza pertsonalik.
- Arrisku egoeraren bat suertatzen bada, ikastetxeko protokoloak jarraitu.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

8. Unitate didaktikoak etapaka

Haur Hezkuntza

1. Saioa: zer behar dugu ongi bizitzeko?

Helburua:	Gure oinarrizko beharrak zein diren eta guztiok zergaitik dugun etxe baten beharra hausnartzea.
Baliabideak:	Kutxa bat, inguruan ditugun elementu fisiko batzuk eta 1, 2 eta 3 eranskinak.

Saioaren garapena:

1. Bizirauteko kutxa

Irakasleak maleta edo kutxa bat aurkeztuko du, bertan bizirauteko irudi eta elementu garrantzitsuak egongo dira: giltzak, ur botila, elikagaiak, manta, jostailu bat, mugikor bat, ohe bat, etxea, arropa, dirua...

Elementuak banaka aurkeztuko dira, eta galderen bitartez hausnarketa bideratuko da:

- Zer da? Zertarako balio du?
- Bizi gaitezke hau gabe?
- Denok behar dugu elementu hau?
- Zer da ezinbestekoa bizitzeko?

2. Zer da etxea? Zer behar du etxea izateko?

Asanbladan etxe huts baten irudia aurkeztuko da. Ikasleen eskura hainbat txartel jarriko dira piktograma formatuan:

- Teilatua, ohea, ura, elikagaiak, berogailua, jostailuak, TV, lehioak, eserlekuak, liburuak, igerilekua, landareak, irratia, bonbila...

Etxe guztiak ez dira berdinak izan behar, baina zer behar dute etxe guztiek seguruak eta duinak izateko?

3. Familia guztiek al dute etxebizitza bat?

Hainbat etxebizitza motatan bizi diren familien ilustrazioak aurkeztu, baita etxebizitza egonkorrik ez duen familia batena ere.

Hausnarketa bideratzeko galderak egingo dira:

- Familia guztiek behar dute etxe bat?
- Zer gertatzen da familia batek etxerik ez badu? Non egingo lukete lo? Non gordeko lituzkete gauzak?

4. Itxiera eta azken produktua

Mural batean jasotako erantzunak bildu eta irudikatuko dira, ondorio nagusi batekin. Adibidez: Etxe bat izatea guztion eskubidea da, denok izan beharko genuke etxebizitza duina izateko aukera.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

2. Saioa: denok ez dugu etxe bat

Helburua:	Egoera bidegabea identifikatzea eta elkartasunean eta etxebizitza eskubidean oinarritutako erantzuna kolektiboki eraikitzea.
Baliabideak:	Maketarako material birziklatua, margoak, itsaskina, guraizeak...

Saioaren garapena:

1. Arazoa

Irakasleak istorio labur bat kontatuko du panpinekin, marrazkiekin edo irudiekin:

Auzo batean sei familia bizi dira. Denek behar dute etxe bat lo egiteko, atseden hartzeko, jolasteko eta elkarrekin egoteko. Baina auzoan lau etxe bakarrik daude. Pertsona batek hainbat etxe ditu eta prezio altuan alokatzen dituenez, familia batzuk ezin dute ordaindu. Bi familiak ez dakite non biziko diren.

Galderak planteatzen dira arazoa ulertzeko:

- → Zer gertatzen da?
- → Bidezkoa al da etxerik gabeko familiak egotea pertsona batzuek bat baino gehiago dituzten bitartean?
- → Zer behar dute familiek?
- → Zer egin genezake denek etxea izateko?

2. Irtenbide bila

Arbelean edo lurrean, auzo edo herri bat irudikatuko dugu, sei familia eta lau etxerekin. Taldeak arazoa nola konpondu pentsatu beharko du.

Galdera irekiak egingo dira eztabaida bideratzeko: nahikoa al da bi familia gau batez gure etxera gonbidatzea? Zer behar dugu guztiek etxea izan dezaten? Nork lagun dezake egoera konpontzen? Zer gertatuko litzateke elkarrekin soluzioak bilatuko bagenitu?

Ikasleen ideiak jaso eta helburu nagusia sartuko da: auzoa antolatzea familia guztiek etxebizitza egokia izan dezaten. Horretarako, maketa edo marrazki bat osatuko da, etxe berriak gehituko dira eta familia guztiak bizi ahal izateko auzo bat eraikiko da.

Irtenbidea ez da norberak bere egoera konpontzea edo etxebizitzarik gabeko familiak gau bat gure etxean pasatzera gonbidatzea. Helduek, erakundeek eta gizarteak bermatu behar dutela mundu guztiak etxe bat izatea, eta hori eskatzeko antola gaitezkeela azalduko zaie.

3. Guztiontzat etxebizitza izango duen auzoa nahi dugu

Talde txikitan, kutxekin, blokeekin edo birziklatutako materialarekin familia guztiek etxebizitza duina izango duten auzo bat eraikiko dute.

Etxeez gain, parkeak, espazio komunak, berdeguneak eta auzoko zerbitzuak ere sar daitezke. Etxebizitzak seguruak, irisgarriak eta pertsonak bizi diren, ikasten duten, lan egiten duten eta zainketak jasotzen dituzten lekuetatik gertu egotearen garrantziaz hitz egingo da.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

Egokitzapenak

Adin tarte bakoitzari dagozkion egokitzapenak egin behar zaizkio, haien ezaugarriak eta gaitasunak kontuan harturik. Bestalde, aniztasunari arreta emanez, ikasle guztien parte-hartzea erraztuko duten laguntzak, egokitzapenak eta moldaketak egingo dira. Besteak beste, laguntza bisualak, jarraibide zehatzak, jardueren aurreikuspenak, material manipulatiboak, piktogramak...

Ebaluazioa

Ebaluazioa jarraitua izango da, ikasleen parte-hartzeak, jolasak eta ekoizpenak zuzenean behatuz. Oinarrizko beharrak ulertzen dituzten eta konponbideak proposatzen dituzten ebaluatuko da.

Behaketarako:

- Duintasunez bizitzeko oinarrizko behar batzuk identifikatzen ditu.
- Etxebizitza guztiok dugun beharra dela adierazten du.
- Ulertzen du familia batzuk etxerik gabe geratzea ez dela bidezkoa.
- Enpatia, errespetua eta elkartasuna adierazten ditu.



STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

Lehen Hezkuntza

1. Saioa: zer behar dugu bizimodu duin bat garatzeko?

Helburua:	Oinarrizko premiak identifikatzea, etxebizitza zergatik den eskubide bat ulertzea eta eskubide hori eskuratzeko dauden desberdintasunak eta zailtasunak aztertzea.
Baliabideak:	4, 5 eta 6 eranskinak.

Saioaren garapena:

1. Beharra ala negozioa?

Elementu desberdinak jasotzen dituen irudiak aurkeztu: ohea, ura, familia, etxea, bideojokoak, interneta, kotxea, gozokiak, janaria, piszina, osasun etxea...

Taldeetan bilduta, antolatu atera diren elementu horiek hiru multzotan: bizitzeko ezinbestekoa, beharrezkoa, desiragarria. Erabakiak justifikatu.

Bideratu eztabaida duintasunez bizitzea eta ondasun material asko edukitzea ez nahasteko. Hausnarketarako galderak: pertsona guztiek izan beharko lituzkete oinarrizko beharrak beteta? Zer gertatzen da familia batek etxebizitza, janaria edo argia ordaindu ezin badu? Etxe bat behar izatea eta etxe handiago bat nahi izatea gauza bera al da?

2. Zertarako balio du etxebizitza batek?

Eztabaidatu talde handian:

- → Etxebizitzaren funtzioak: babesa, atsedena, intimitatea, elkarbizitza, segurtasuna...
- → Bizimodu duin baterako etxebizitza ezinbestekoa bada, zergatik ezin dute denek etxebizitza eskuratu? Sartu soldatak eta prezioak bezalako kontzeptuak.
- → Etxebizitza, bizitzeko izateaz gain, zertarako erabili daiteke? Sartu negozioa, espekulazioa eta errenta bezalako kontzeptuak.

3. Errealitatean sortzen diren desorekak:

Aurkeztu asmatutako lau egoera:

a) Familia batek diru sarrera egonkorrak ditu eta alokairua ordain dezake oinarrizko beste gastu batzuei uko egin gabe.

b) Beste familia batean, lana egiten duten arren, diru sarreren zati handiena alokairua ordaintzeko bideratzen da eta beste gastu batzuk ordaintzeko zailtasunak dituzte.

c) Hirugarren familia bat etxebizitza bila ari da, baina prezioak garestiegiak dira eta ez dute beste aukerarik topatzen.

d) Azken familiak ezin ditu alokairuan bizitzeko baldintzak bete eta etxegabetzeko zorian dago.

Taldeka, aztertu aurreko lau egoerak hurrengo galderen baitan:

- → Zein zailtasun edo erraztasun ditu familia bakoitzak?
- → Baldintza berberetatik abiatzen al dira guztiak?
- → Nahikoa al da ahalegintzea eta lan egitea etxebizitza bat eskuratu ahal izateko?
- → Zer ondorio izan ditzake ia diru guztia alokairura bideratzeak?

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

- Zein egoeratan gelditzen da familia bat etxegabetu ondoren?
- Nork esku har dezake egoera hori hobetzeko?

4. Itxiera eta azken produktua

Taldeetan ateratako ondorioak bateratu eta hurrengo eskema osatu guztion artean: beharra, sarbidean desberdintasuna, kausak, ondorioak, irtenbide posibleak.

Lortu beharreko ondorioen artean dago etxebizitza ez dela banakako ahaleginaren saria, oinarrizko beharra baizik, eta hori lortzea bermatu egin behar dela. Lan egitea eta diru sarrerak izatea garrantzitsua da, baina ez da nahikoa prezioen, etxebizitzen eskuragarritasunaren eta erabaki politikoen mende dagoen arazo bat konpontzeko.

2. Saioa: denok bizitzeko moduko auzoa

Helburua:	Bidegabekoa den egoera identifikatzea eta elkartasunean eta etxebizitza eskubidean oinarritutako erantzun kolektiboa eraikitzea.
Baliabideak:	7, 8 eta 9 eranskinak.

Saioaren garapena:

1. Gure auzoaren aurkezpena:

Gure auzoan etxebizitza bila dabiltzan 20 familia daude, baina 15 etxebizitza baino ez daude alokagai. Prezioek gora egin dute eta batzuk ordaintzeko zailtasunak dituzte. Etxebizitza hutsen jabeek ez dituzte alokairuko prezioak jaitsi nahi. Familia batzuk auzotik alde egiteko zorian daude.

Erronka: nola lor dezakegu familia guztiek etxebizitza duina izatea gure auzotik alde egin gabe?

Taldeetan, identifikatu gure auzoan etxebizitza eskuratzeko arazo nagusiak (soldatak, prezioak, eskaintza...) eta ondorioak (bizitokirik ez, auzoa utzi...).

2. Konponbide bila

Taldeetan bilduta, arazoa iraultzeko hiruzpalau proposamen planteatu. Maila baxuenetan proposamen batzuk aurkeztu daitezke eta aukeratzeko eman, ondoren aukeratu izanaren justifikazioa eta argudiaketa eskatu.

- Alokairua eskuragarri izanen den etxebizitza parke publikoak eraikitzea.
- Hutsik dauden etxebizitzak birgaitzea.
- Aiton amonekin bizitzea.
- Alokairuko prezioei mugak jartzea.
- Etxegabetzeen aurrean familiei alternatibak eskaintzea.
- Etxegabetzen dituzten familiak gure etxeetan hartzea.
- Espekulazioarekin amaitzea.
- Soldatak eta lan baldintzak hobetzea.

Eztabaida bideratzeko, familiak bolondreski laguntzearen onurak azpimarratu, baina honek ez duela arazoari aurre egiteko baldintzak aldatzeko beharra ordezkatzen argitu.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

3. Noren esku dago konponbidea?

Aurreko jardueran ateratako konponbiderako proposamen horiek zeinen esku dauden aztertu. Hemen gizarte eragileak aurkeztu: administrazio publikoak, udalak, Nafarroa Garaiko Gobernua, Eusko Jaurlaritza, bestelako erakundeak, sindikatuak, herritarrak.

Talde bakoitzak proposamen bat aukeratu dezala eta ekintza horiek bultzatu ditzaketen erakundeekin erlazionatu. Edo beste modu batera lantzeko, erakunde bakoitzak egin dezakeena aztertu: herritarrek ekimen kolektiboak, sindikatuek egoerak salatu eta aldarrikapenak antolatu, administrazioek etxebizitza politika publikoak garatu etab.

Arazoa erabaki indibidualekin bakarrik konpontzen ez dela ulertzea da helburua.

4. Itxiera eta azken produktua

Herritarren eta sindikatuen artean sortutako etxebizitza eskubidearen aldeko kanpaina bat abian jarri. Taldeetan lelo bat, kartel bat eta pankarta bat sortu. Horrekin batera joango den manifestu txiki bat idatzi aldarrikapen eta proposamen zehatzekin.

Kanpaina desberdinak aurkeztu gainerako ikasleei. **Euskal Herriko etxebizitza sindikatuen sareak** eta **STEILAS**ek argitaratutako materialak aztertu ditzakezue adibide gisa.

Egokitzapenak

Beheko mailetan, irudiak, egoera zehatzak eta proposamen errazak lehenetsiko dira.

Goimailako ikasturteetan, alokairuan, espekulazioan, politika publikoetan, soldatetan eta erakundeen eskumenetan sakondu daiteke.

Ikasleei ez zaie eskatuko beren familiaren baldintza ekonomikoak edo bizitokiak jendaurrean azaltzeko. Egoerak fikziozko kasuen bidez eta errespetuz landuko dira, etxebizitza lortzeko zailtasunak dituztenak erruduntzat jo edo estigmatizatu gabe.

Ebaluazioa

Ebaluazioa jarraia izango da. Edukien ulermena zein argudiatzeko, beste ikuspegi batzuk entzuteko eta proposamenak egiteko gaitasuna aztertuko dira.

Behaketarako:

- → Etxebizitza oinarrizko premia eta eskubide gisa identifikatzen du.
- → Oinarrizko beharrak eta desioak bereizten ditu.
- → Etxebizitza eskuratzeko desberdintasunen kausa eta ondorio batzuk ezagutzen ditu.
- → Ulertzen du banakako ahaleginak ez dituela berez konpontzen egiturazko oztopoak.
- → Irtenbideak proposatzen ditu eta ekintza indibidualak, kolektiboak eta instituzionalak bereizten ditu.
- → Eztabaidan aktiboki parte hartzen du eta ikaskideen iritziak errespetatzen ditu.
- → Aldarrikapen kanpaina bat egiten laguntzen du.
- → Etxebizitzarako eskubidea justizia sozialarekin eta eskubideen defentsa kolektiboarekin lotzen du.

Ikasleen azken produktua ere balora daiteke, mezuaren argitasuna, arazoaren eta proposatutako irtenbidearen arteko lotura, argudiatzea eta taldearen barruko lankidetza kontuan hartuta.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

1. Saioa: etxebizitza eskubidea ala negoziorako etxebizitza?

Helburua:	Etxebizitza batek dituen beharrak ulertzea, etxebizitza eskuratzeko zailtasunen arrazoiak aztertzea eta herritarrok eskubide hori bermatua dugula zalantzan jartzea.
Baliabideak:	10, 11, 12 eta 13 eranskinak.

Saioaren garapena:

1. Zer behar dugu duintasunez bizitzeko?

Duintasunez bizitzeko ideia jasa bat egin, arbelean idatzi eta ondoren banaka garrantziaren arabera ordenadu ditzatela. Jarraian, talde txikian, erantzun edo hausnartu galdera hauen inguruan:

- Zein behar bermatu beharko lirateke pertsona guztientzat?
- Zein ondorio ditu etxebizitza egokia ez izateak?
- Autonomiaz hitz egin dezakegu norbaitek benetako bizitokirik ez badu?
- Nahikoa al da lan egitea etxebizitza bat ordaindu ahal izateko?

Erantzunak bateratu eta eztabaida hurrengo ideia barneratzera bideratu: etxebizitzak beste eskubide batzuk baldintzatzen ditu, adibidez, ikastea, lan egitea, familia bat osatzea, zaintzea, atseden hartzea eta gizartean parte hartzea.

2. Etxebizitza: bizitzeko edo dirua irabazteko?

Asmatutako bost egoera planteatu:

- Pertsona batek etxebizitza bat alokatu du bere lantokitik gertu bizi ahal izateko.
- Familia batek diru sarreren erdia baino gehiago bideratzen du alokairura.
- Enpresa batek etxebizitzak erosten ditu errentagarritasuna lortzeko, alokatuz edo etorkizunean garestiago salduz.
- Gazte batek lan egiten du, baina ez du lortzen etxebizitza bat eskuratzeko adina aurreztea.
- Adin txikikoak dituen familia bat etxegabetzeko arriskuan dago alokairua ordaindu ezin duelako.

Taldeka, aztertu kasu bakoitzean zein den etxebizitzak betetzen duen funtzioa, zeinek lortzen dituen onurak eta zein ateratzen denkaltetua, zeinen gain dauden gastuak eta zein diren kasuen arteko desberdintasunak.

Sartu erabileraren eta negozioaren kontzeptuak: etxebizitza oinarrizko premia bat asetzeko gunea da; etxebizitzak, erosten, saltzen edo alokatzen den ondasun gisa, etekin ekonomikoak sor ditzake.

Eztabaida kontraesanetara bideratu, etxebizitza iturri ekonomiko gisa tratzen denean, etxebizitza behar dutenen gaitasun ekonomikotik urrun daiteke haren prezioa.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

3. Etxebizitza arazoaren azterketa

Datu kontrastatuak jasotzen dituen dokumentua aurkeztu: alokairuen bilakaera, soldatak, gazteen emantzipazioa, etxebizitza publikoa eta Nafarroa Garaian edo Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza bat lortzeko zailtasunak.

Ikasleek honako hauek identifikatu beharko dituzte taldeetan:

- → Adierazle bakoitzak zer informazio ematen duen.
- → Etxebizitzaren prezioen eta diru sarreren arteko lotura.
- → Zein gizarte taldek dituen zailtasun handienak.
- → Etxebizitza larrialdiak gazteen autonomian eta familia langileen bizitzan dituen ondorioak.

Informazio iturriak: Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokia, Eustat, Etxebizitzaren Euskal Behatokia, Espainiako Gazteriaren Kontseilua eta soldaten eta alokairuen datu ofizialak.

Helburua ez da estatistikak buruz ikastea, argudiatzeko erabiltzen ikastea baizik.

4. Arazoa indibiduala ala kolektiboa da?

Honako baieztapen hau jarriko dugu ezbaian: *"Pertsona batek ezin badu etxebizitza bat ordaindu, ahalegin handiagoa egin behar du eta irtenbide indibidual bat bilatu"*.

Taldeka, baieztapenaren aldeko eta kontrako argudioak prestatu. Ondoren, eztabaidara eraman, honako galdera hauekin:

- → Zertan eragiten dute soldatek eta lan egonkorrek?
- → Zer gertatzen da prezioak sarrerak baino azkarrago igotzen badira?
- → Arazoa etxebizitza gehiago eraikiz bakarrik konpon daiteke?
- → Zein erantzukizun dute administrazio publikoek?
- → Zein alde dago pertsona bati laguntzearen eta arazoa sortzen duten baldintzak aldatzearen artean?

Analisia egiturazko arazoetara bideratu, etxebizitza eskuratzeko ahalmena norberaren esku egotera murriztu gabe.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

2. Saioa: nola bermatu dezakegu etxebizitza eskubidea?

Helburua:	Etxebizitza larrialdiari konponbidea bilatzeko proposamen zehatzak diseinatzea, krisiaren ondorioak ebaluatzea eta aldarrikapen kolektiboak egitea.
Baliabideak:	14, 15, 16 eta 17 eranskinak.

Saioaren garapena:

1. Gure auzo eta herrietako gatazka

Asmatutako kasu bat planteatu, edo inguruan kasu errealen bat badago, hartu adibide bezala:

Euskal Herriko udalerri batean, alokairuak nabarmen igo dira azken urteotan. Gazte askok ezin dute emantzipatu, eta familia langile batzuk diru sarreren zati handi bat erabili behar dute etxebizitza ordaintzeko. Pertsona batzuk udalerritik alde egin behar izaten dute; alokairuko parke publikoa, berriz, ez da nahikoa, eta eskuragarri dauden etxebizitza batzuk ohiko bizilekuaz bestelako erabileretarako erabiltzen dira. Udalak batzar bat deitu du erantzunak aztertzeko. Taldeka, identifikatu arazoa, horren kausak eta kaltetutako pertsonak. Bideratzeko galderak:

- Nork jasaten ditu egoera honen ondorioak? → Zein faktorek azal dezakete prezioen igoera?
- Zein eskubide eta behar daude jokoan?
- Zein neurri hartu beharko lirateke presaz, eta zeintzuk behar dituzte egiturazko aldaketak?

2. Konponbide laborategia

Konponbiderako proposamen batzuk helaraziko zaizkie eta proposamen horien abantailak, mugak, ondorio posibleak eta horiek gauzatzeko baldintzak baloratuko dituzte.

a) Esku hartze publikoa

- Alokairuko parke publiko eskuragarria handitzea edo berriak eraikitzea.
- Hutsik dauden etxebizitzak ohiko bizileku izateko neurriak hartzea.
- Lehendik dauden eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea.
- Etxegabetzeen aurkako babesa indartzea eta bizitoki alternatibak bermatzea.

b) Merkatua arautzea

- Alokairuen eta etxebizitzaren prezioei mugak jartzea.
- Iruzurrari eta abusuzko jardunei aurre egitea.
- Etxebizitzaren erabilera turistikoak arautzea.
- Espekulazioaren aurkako eta etxebizitzaren funtzio sozialaren aldeko neurriak aplikatzea.

c) Eredu espekulatiboaren alternatibak

- Etxebizitza kooperatibak bultzatzea.
- Etxebizitza babestuen eta alokairu eskuragarri iraunkorreko etxebizitzen formulak sustatzea.
- Auzo antolaketa eta aholkularitza kolektiboa erraztea.
- Lan eskubideak eta diru sarrerak indartzea, bizi-baldintzak hobetzeko.

Talde bakoitzak lehentasunezko hiru neurri hautatuko ditu, eta justifikatu egin beharko du zergatik jotzen dituen eraginkortzat. Halaber, adierazi behar du zein administraziok edo erakundek bultza ditzakeen neurri horiek eta zein zailtasun sor daitezkeen.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

3. Etxebizitza eskubidearen aldeko asanblada

Lauzpabost talde sortu eta talde bakoitzak eragile sozial bat ordezkatuko du: gazteria, familia langilea, etxebizitza sindikatua, hezkuntza sindikatua, auzo elkartea eta administrazio publikoa, adibidez. Eragile bakoitzak bere lehentasunak azaldu eta hainbat neurri negoziatzen ditu. Helburua izango da etxebizitza eskubidearen, interes ekonomikoen eta erabaki politikoen artean egon daitezkeen gatazkak ulertzea.

Guztien artean, proposamen amankomun bat idatzi beharko dute, hiru atalekin:

- Bizitzeko zailtasunak dituztenak babesteko premiazko neurriak.
- Etxebizitza duinak eta eskuragarriak bermatzeko egiturazko aldaketak.
- Eskaerak bete daitezen antolatzeko eta mobilizatzeko moduak.

4. Gogoetatik aldarrikapenera

Talde bakoitzak, eragile bateko ordezkari gisa, azaroaren 11ko grebari lotutako kanpaina bat sortuko du: kartela, manifestua, infografia eta sareetarako argitalpena ezinbestekoak izanen dira. Materialak aldarrikapen argi bat, arazoaren azalpen bat, proposamen zehatz bat eta hori justifikatzen duen argudio bat izan beharko ditu.

Honako lelo hauek erabil daitezke:

- «Etxebizitza eskubidea da, ez negozioa».
- «Gure bizitzak besteen onura ekonomikoak baino gehiago balio du».
- «Etxebizitza duinik gabe ez dago bizitza duinik».
- «Etxebizitza denontzat».

Aurkeztu kanpainak beste ikaskideen aurrean. Horren adibide dituzue **STEILAS** sindikatuaren eta **EUSKAL HERRIKO ETXEBIZITZA SINDIKATUEK** ateratakoak.

Egokitzapenak

DBHko 1. eta 2. mailan lehentasuna emango zaie kasu zehatzei, oinarrizko kontzeptuak ulertzeari eta konponbideak konparatzeari. 3. eta 4. mailetan etxebizitzaren merkatuaren funtzionamenduan, politika publikoetan, erakundeen eskumenetan eta datuen analisi kritikoan sakondu ahal izango da.

Ebaluazioa

Ebaluazioa jarraia izango da. Edukien ulermena zein argudiatzeko, beste ikuspegi batzuk entzuteko eta proposamenak egiteko gaitasuna aztertuko dira.

Behaketarako:

- Etxebizitza eskubide gisa ulertzen du, eta bizileku funtzioa eta helburu ekonomikoa bereizten ditu.
- Etxebizitza eskuratzeko zailtasunen kausak eta ondorioak identifikatzen ditu.
- Prezioei, soldatei eta bizitoki baldintzei buruzko datuak interpretatzen ditu.
- Lan prekarietatea eta desberdintasun ekonomikoak emantzipatzeko zailtasunekin lotzen ditu.
- Hainbat neurri kritikoki aztertzen ditu eta horien abantailak, mugak eta aplikazio baldintzak ezagutzen ditu.
- Bere proposamenak argudiatzen ditu, besteenak entzunda.
- Administrazioen, sindikatuen eta herri mugimenduen zeregina identifikatzen eta bereizten ditu.
- Modu kooperatiboan parte hartzen du proposamen kolektiboak egiten.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

1. Saioa: etxebizitza arazoaren erroa

Helburua:	Ulertzea etxebizitza eskubide gisa aitortzeak ez duela etxebizitza eskuratzea bermatzen eta eskubide hori zailtzen duten harreman ekonomikoak aztertzea.
Baliabideak:	18, 19 eta 20 eranskinak

Saioaren garapena:

1. Aitortutako eskubidea, bermatutako eskubidea al da?

Irakurri eta aztertu Konstituzioaren 47.artikulua, Nafarroa Garaiko etxebizitza araudia eta Euskal Autonomi Erkidegokoa. Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea aitortzen da, eta botere publikoen esku uzten da eskubide hori gauzatzeko eta lurzorua interes orokorraren arabera arautzeko behar diren baldintzak sustatzea, espekulazioa eragozteko.

Irakurri ondoren, ikasleek banaka erantzuteko hurrengo galderak planteatu:

- Zer esan nahi du eskubide bat legez onartuta egoteak?
- Zer gertatu beharko litzateke pertsona guztien eskubideak aurrera eraman ahal izateko?
- Zer adierazlek ahalbidetuko lukete eskubide hori bermatuta dagoen jakitea?
- Nola azal daiteke aitortza juridiko bat egotea eta, aldi berean, etxebizitza egoki bat eskuratu ezin duten pertsonak egotea?

Erantzunak partekatu eta hurrengo ondoriora heltzea bideratu: eskubide bat aitortzeak ez du esan nahi eskubide hori bermatzeko behar diren baldintzak ematen direnik.

2. Etxebizitzaren azterketa ekonomikoa

Taldeka, datu ofizialak aztertu, alokairu prezioei, diru sarrerei, alokatzeko etxebizitzen kopuruari eta merkatuaren bilakaerari buruzkoak.

Erabili Nafarroa Garaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuak biltzen dituzten webguneak.

Talde bakoitzak erreferentziako urtea, lurraldea, aztertutako aldagaia eta datuaren mugak identifikatu behar ditu. Ondoren, galdera honi erantzun beharko diote: nola erlazionatzen da alokairuaren bilakaera langileen diru sarrerekin?

3. Soldata eta alokairua: zenbat geratzen da bizitzeko?

Asmatutako bi profil aurkeztu eta ondorengo galderak erantzun.

	A profila	B profila		A profila	B profila
Diru sarrera garbiak	1450 €	1900 €	Elikadura	250 €	300 €
Alokairua	650 €	850 €	Garraioa	60 €	90 €
Etxeko fakturak	120 €	140 €	Soberakinak	370 €	520 €

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

- Diru sarreren zein proportzio bideratzen da alokairura kasu bakoitzean?
- Zein gastu falta dira aurrekontuetan?
- Zer gertatuko litzateke gaixotasun, ezusteko (etxeko edo kotxeko konponketa bat adibidez) edo lanaldi murrizketa baten aurrean?
- Nola eragiten dute lan prekarietateak, zaintzak eta irisgarritasunak?
- Norbanakoaren ahaleginaren bidez bakarrik konpon al daiteke egoera hori?

Helburua da lan baldintzak etxebizitza eskuratzearekin lotzea eta ulertzea pertsona batek lan egin dezakeela eta, hala ere, bizitza duina izateko baliabide nahikorik ez izatea.

4. Non dago arazoaren erroa?

Taldeka, harreman mapa edo kontzeptu mapa bat sortu: etxebizitzen jabetza, bankuak, eraikuntza enpresak, inbertitzaile handiak, errentariak, alokairuak, soldatak, politika publikoak eta bizimoduri duinerako beharrak.

Ideia nagusia: arazoa ez da etxebizitza eskaintza faltara mugatzen, baizik eta etxebizitza logika espekulatibo eta errentista baten mende egoteari lotuta dago.

Taldeek aztertu behar dute nork eta nola lortzen dituen diru sarrerak etxebizitzatik, nondik datozen diru sarrera horiek, noren gain dauden etxebizitzaren gastuak eta nola banatzen diren etxebizitzaren erabilerari buruz erabakitzeko ardurak.

Talde bakoitzak egindako azterketak hurrengo galderari erantzun beharko dio eta ondorio bezala aurkeztu: nahikoa al da etxebizitzen eskaintza handitzea edo beharrezkoa da jabetzak, baliabideen erabilera eta eskuratzeko baldintzak arautzea?

Irudikatu mapa baten bidez kausak eta arazoaren erroari buruzko ondorio labur bat gehitu.

2. Saioa: zein eraldaketa behar ditugu etxebizitza bermatzeko?

Helburua:	azaroaren 11ko greba orokorreko aldarrikapenak lantzea, bere printzipioak proposamen zehatz bihurtzea eta horiek egia bihurtzeko mobilizazio kolektiboak duen garrantzia ulertzea.

Baliabideak:	21, 22 eta 23 eranskinak.

Saioaren garapena:

1. Diagnostikotik transformaziora

Aurreko saioko ondorioak berreskuratu eta greba deialdiko hiru transformazio nagusiak aurkeztu:

a) Espekulatzaileen desjabetzea. Aztertu zein modutan eragotzi daitekeen etxeen pilaketa espekulatiboa herritarren etxebizitza eskubidearen aurretik jartzea.

b) Espekulazioaren debekua. Eztabaidatu zein arau eta mekanismok eragotzi beharko luketen oinarrizko premia bat aberasteko tresna gisa erabiltzea. Zein erabilera lehenetsi, nola bermatu arauak betetzen direla...

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

c) Etxebizitzen banaketa arrazionala eta bidezkoa. Gogoeta egin, ea nola antolatu beharko litzatekeen etxebizitza parke publiko baterako sarbidea, langileen benetako premiak, irisgarritasuna, diru sarrerak eta familia egoerak kontuan hartuta.

Talde bakoitzak aukera dezala eraldaketarako neurri bat eta sakondu dezala haren esanahian eta praktikan jartzeko beharrezko baldintzetan.

2. Proposamen tailerra: berehalako neurriak eta egiturazko aldaketak

Taldeek proposamen zehatz bihurtu behar dituzte beren ideiak eta bi esku hartze maila bereizi: berehala hartzeko neurriak eta egitura aldaketak.

Berehala hartzeko neurrietan, grebaren oinarrien arabera, etxegabetzeak bertan behera uztea eta etxebizitzen prezioak jaistea premiazko egoerak arintzeko gai diren neurriak dira, baina ez dira nahikoak arazoaren egiturazko arrazoiak beren kabuz eraldatzeko.

Talde bakoitzak fitxa bat beteko du atal hauekin:

- → Konpondu nahi den arazoa.
- → Proposatutako egitura eraldaketa.
- → Berehalako neurri osagarria, hala badagokio.
- → Kaltetutako pertsonak eta erantzun beharreko beharrak.
- → Esku hartzeko gaitasuna duten eragileak eta erakundeak.
- → Aplikatzeko beharrezko baliabideak.
- → Etxebizitza benetan eskuratzea hobetzen den ebaluatzeko aukera emango luketen adierazleak.

3. Batzarra eta borroka kolektiboa

Taldeek gelako asanbladan landutako proposamenak aurkeztuko dituzte. Lehentasunak eztabaidatuko dira eta aldarrikapen amankomunak sortuko dira.

Batzarrak honako erabakiak hartu beharko ditu:

- → Lehentasunezkotzat jotzen dituzten egiturazko eraldaketak.
- → Berehala arintzeko neurriak.
- → Mobilizazio ekintza zehatz bat, aldaketak eskatzeko.
- → Proposamenek egoera hobetzen duten egiaztatzeko adierazleak.

Langile klasearen antolaketari buruzko azken gogoeta egin: alderdi politikoen eskubide aitorpenak edo hauteskunde konpromisoek ez dute berez eskubide hori betetzea bermatzen. Konkista sozialek gaitasun kolektiboa behar dute neurri zehatzak eskatzeko, horien aplikazioa zaintzeko eta gizartearen presioari eusteko.

Azken produktua: etxebizitza eskubidearen aldeko proposamen kolektibo bat eta ikastetxean zabaltzeko materiala sortu. Horretarako, baliabide digitalak erabili. Kartelak, infografiak, manifestua, grafikoak, datuak, pankartak etab.

Adibide gisa **STEILAS** eta **Euskal Herriko Etxebizitza sindikatuen sareak** ateratako materiala azter dezakezue.

Egokitzapenak

Batxilergoan, azken produktuak proposamen politiko baten itxura har dezake; diagnostikoa, ebidentziak, proposatutako neurriak, arduradunak eta jarraipen adierazleak.

Lanbide Heziketan, esku hartze profesionaleko proiektu, prototipo, diseinu tekniko, zerbitzu proposamen edo espezialitateari lotutako komunikazio tresna bihur daiteke, betiere grebaren aldarrikapenekin lotuta.

Ebaluazioa

Ebaluazioa jarraia izango da. Edukien ulermena zein argudiatzeko, beste ikuspegi batzuk entzuteko eta proposamenak egiteko gaitasuna aztertuko dira.

Behaketarako:

- Aitorpen juridikoaren eta etxebizitzarako eskubidearen berme eraginkorraren arteko aldea ulertzen du.
- Soldatak, jabetza eta etxebizitza eskuratzeko baldintzak bizitoki arazoarekin lotzen ditu.
- Espekulazioa eta errentismoa kritikoki aztertzen ditu.
- Egiturazko eraldaketak eta arintzeko momentuko neurriak bereizten ditu.
- Grebaren oinarrian dauden eraldatzeko hiru ildoak ulertzen ditu.
- Proposamen zehatzak egin ditu eta proposamen horiek zein eragilek bultza ditzakeen aztertu du.
- Proposamen kolektibo bat egiten parte hartzen du eta bere ondorioak argudiatzen ditu.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

9. Eranskinak

1. Eranskina. HHrako irudiak

Ura	Giltzak	Elikagaiak	Argi indarra

Manta	Jostailuak	Mugikorra	Lana

Ohea	Etxea	Arropa	Dirua

Berogailua	Zaintzak

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

2. Eranskina. Etxe hutsa

Zer behar du etxeak segurua eta duina izateko?



STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

3. Eranskina. Etxebizitza motak

Etxe propioa duena	Alokairuan bizi dena	Etxe mugikorrean bizi dena

Baserrian bizi dena	Etxea partekatzen duena	Etxerik ez duena

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

4. Eranskina. Bizitzeko elementuak

Ura	Elikagaiak	Argi indarra	Manta

Jostailuak	Mugikorra	Ohea	Etxea

Arropa	Dirua	Berogailua	Zaintzak

Gozokiak	Igerilekua	Osasun etxea
		

Sailkatu:

Bizitzeko ezinbestekoak	Garrantzitsuak	Desiragarriak

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

5. Eranskina. Familia egoerak

Familia 1 Diru sarrera egonkorrak	Familia 2 Alokairuaren zama
Familia honek diru sarrera egonkorrak ditu eta alokairua ordain dezake oinarrizko beste gastu batzuei uko egin gabe.	Etxe honetan, lana egiten duten arren, diru sarreren zati handiena alokairua ordaintzeko bideratzen dute eta beste gastu batzuk ordaintzeko zailtasunak dituzte.
Familia 3 Etxebizitza bila	**Familia 4 Etxegabetzeko arriskua**
Familia hau etxebizitza bila ari da, baina prezioak garestiegiak dira eta ez dute aukera egokirik topatzen.	Azken familiak ezin ditu alokairuan bizitzeko baldintzak bete eta etxegabetzeko zorian dago.

Erantzun galderak:

- Zein zailtasun edo erraztasun ditu familia bakoitzak?
- Baldintza berberetatik abiatzen al dira guztiak?
- Nahikoa al da ahalegintzea eta lan egitea etxebizitza bat eskuratu ahal izateko?
- Zer ondorio izan ditzake ia diru guztia alokairura bideratzeak?
- Zein egoeratan gelditzen da familia bat etxegabetu ondoren?
- Nork esku har dezake egoera hori hobetzeko?

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

6. Eranskina. Beharretik irtenbidera

Osatu eskema:

BEHARRA. Zergatik da etxebizitza oinarrizko beharra?

SARBIDE DESBERDINTASUNA. Nork ditu zailtasunak etxebizitza eskuratzeko?

KAUSAK. Zein faktorek eragiten dute?

ONDORIOAK. Zer gertatzen da etxebizitza eskuratu daitekeenean? Eta ezin denean?

INTERNBIDE POSIBLEAK. Zein neurri edo aldaketa proposa ditzakegu?

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

7. Eranskina. Gure auzoa

Egoera: Gure auzoan etxebizitza bila dabiltzan 20 familia daude, baina 15 etxebizitza baino ez daude alokagai. Prezioek gora egin dute eta batzuk ordaintzeko zailtasunak dituzte. Etxebizitza hutsen jabeek ez dituzte alokairuko prezioak jaitsi nahi. Familia batzuk auzotik alde egiteko zorian daude.

Etxebizitza behar duten familiak:	Alokairuan eskuragarri:
20	15
Denek behar dute etxea	Ez dira nahikoak

Erronka: nola lor dezakegu familia guztiek etxebizitza duina izatea gure auzotik alde egin gabe?

Zein da auzoko arazo nagusia?

Zein kausa agertzen dira egoeran?

Zein ondorio dituzte familientzat eta auzoarentzat?

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

8. Eranskina. Konponbide bila

Alokairua eskuragarri izanen den etxebizitza parke publikoak eraikitzea. NEURRI PUBLIKOA	Hutsik dauden etxebizitzak birgaitzea. BALIABIDEAK APROBETXATZEA
Aiton amonekin bizitzea. AUKERA BAT	Alokairuko prezioei mugak jartzea. ARAUDIA ALDATZEA
Etxegabetzeen aurrean familiei alternatibak eskaintzea. PRESAZKO BABESA	Etxegabetzen dituzten familiak gure etxeetan hartzea. ELKARTASUNA
Espekulazioarekin amaitzea. EGITURAZKO ALDAKETA	Soldatak eta lan baldintzak hobetzea LAN BALDINTZAK

Aukeratu taldeka bizpahiru proposamen eta erantzun:

→ Proposamen bakoitzak, zein arazori egiten dio aurre?

→ Nork bultzatu dezake proposamena?

→ Neurriak banaka hartuta, nahikoa al da?

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

9. Eranskina. Etxebizitza eskubidearen aldeko kanpaina

Leloa: .....

Kartela edo irudia:

Azken **MANIFESTUA** idazteko eman erantzuna hurrengo galderei:

1. Zein arazo salatu nahi dugu?

.....

.....

2. Nori eragiten dio arazoak?

.....

.....

3. Zein aldarrikapen zehatz egiten ditugu/dugu?

.....

.....

4. Zein konponbide proposatzen ditugu?

.....

.....

5. Nori eskatu behar dizkiogu aldaketa horiek?

.....

.....

6. Nola antola gaitezke gure aldarrikapena zabaltzeko?

.....

.....

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

10. Eranskina. Zer behar dugu duintasunez bizitzeko?

Idatzi bakarka duintasunez bizitzeko behar ditugun elementuak zein diren, eta osatu zerrenda taldean.

Zer behar dugu duintasunez bizitzeko?

Goian aipatutako elementu bakoitza sailkatu hurrengo taulan.

Bizitzeko ezinbestekoa	Garrantzitsua	Desiragarria

Hausnartu taldeka hurrengo galderen inguruan:

→ Zein behar bermatu beharko lirateke pertsona guztientzat?

→ Zein ondorio ditu etxebizitza egokia ez izateak?

→ Autonomiaz hitz egin dezakegu norbaitek benetako bizitokirik ez badu?

→ Nahikoa al da lan egitea etxebizitza bat ordaindu ahal izateko?

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

11. Eranskina. Etxebizitza, bizitzeko edo dirua irabazteko?

Lanetik gertu

Pertsona batek etxebizitza bat alokatu du bere lantokitik gertu bizi ahal izateko.

Diru sarreren erdia alokairura

Familia batek diru sarreren erdia baino gehiago bideratzen du alokairura.

Espekulazioa

Enpresa batek etxebizitzak erosten ditu errentagarritasuna lortzeko, alokatuz edo etorkizunean garestiago salduz.

Gazte langilea

Gazte batek lan egiten du, baina ez du lortzen etxebizitza bat eskuratzeko adina aurreztea.

Etxegabetze arriskua

Adin txikikoak dituen familia bat etxegabetzeko arriskuan dago alokairua ordaindu ezin duelako.

Egoera bakoitzean, aztertu eta hausnartu honakoak. Idatziz jaso.

1. Zein den etxebizitzaren funtzioa.

2. Zein ateratzen den onuradun eta zein kaltetu.

3. Zeinen gain dauden gastuak.

4. Aipatu kasuen arteko desberdintasun nagusiak.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

12. Eranskina. Ikerketa fitxa

Talde bakoitzak gutxienez bi adierazle aukeratu behar ditu. Datuak bildu, grafiko sinple bat egin eta azaldu zer esan daitekeen eta zer ez.

Adierazlea	Balioa edo grafikoa	Lurraldea	Ondorioa
Alokairuaren bilakaera			
Soldatak / diru sarrerak			
Gazteen emantzipazioa			
Etxebizitza publikoa			

Datuen interpretazioa:

→ Zer informazio ematen du adierazleak?

.....

.....

→ Zein lotura ikusten dugu etxebizitzaren prezioen eta diru sarreren artean?

.....

.....

→ Zein gizarte taldek izan ditzake zailtasun handienak? Zergatik?

.....

.....

→ Zer ondorio izan ditzake gazteen autonomian edo familia langileen bizitzan?

.....

.....

→ Zer ondorio atera dezakegu? Zein galderak jarraitzen du erantzun gabe?

.....

.....

Informazio iturriak: Nafarroako Errealitate Sozialaren Behatokia, Eustat, Etxebizitzaren Euskal Behatokia, Espainiako Gazteriaren Kontseilua eta soldaten eta alokairuen datu ofizialak.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

13. Eranskina. Arazo indibiduala ala kolektiboa?

Eztabaidagai: *"Pertsona batek ezin badu etxebizitza bat ordaindu, ahalegin handiagoa egin behar du eta irtenbide indibidual bat bilatu"*.

Aldeko argudioak	Kontrako argudioak

Eztabaidatu galdera hauen inguruan eta idatziz jaso norberaren hausnarketa.:

→ Zertan eragiten dute soldatek eta lan egonkorrek?

→ Zer gertatzen da prezioak sarrerak baino azkarrago igotzen badira?

→ Arazoa etxebizitza gehiago eraikiz bakarrik konpon daiteke?

→ Zein erantzukizun dute administrazio publikoek?

→ Zein alde dago pertsona bati laguntzearen eta arazoa sortzen duten baldintzak aldatzearen artean?

→ Ondorioa.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

14. Eranskina. Gure auzoko gatazka

Kasua: *Euskal Herriko udalerri batean, alokairuak nabarmen igo dira azken urteotan. Gazte askok ezin dute emantzipatu, eta familia langile batzuk diru sarreren zati handi bat erabili behar dute etxebizitza ordaintzeko. Pertsona batzuk udalerritik alde egin behar izaten dute; alokairuko parke publikoa, berriz, ez da nahikoa, eta eskuragarri dauden etxebizitza batzuk ohiko bizilekuaz bestelako erabileretarako erabiltzen dira. Udalak batzar bat deitu du erantzunak aztertzeko.*

Identifikatu arazoak, faktoreak eta ondorioak. Osatu taula:

Arazo nagusiak	Kausak / faktoreak	Kaltetuak / ondorioak	Presazko edo egiturazko neurriak

Taula osatzeko galdera hauek hartu aintzat.

→ Nork jasaten ditu egoera honen ondorioak?

→ Zein faktorek azal dezakete prezioen igoera?

→ Zein eskubide eta behar daude jokoan?

→ Zein neurri hartu beharko lirateke presaz, eta zeintzuk behar dituzte egiturazko aldaketak?

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

15. eranskina: konponbide laborategia

Konponbiderako proposamenak:

Esku hartze publikoa	Merkatua arautzea	Eredu espekulatiboaren alternatibak
→ Alokairuko parke publiko eskuragarria handitzea edo berriak eraikitzea. → Hutsik dauden etxebizitzak ohiko bizileku izateko neurriak hartzea. → Lehendik dauden eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea. → Etxegabetzeen aurkako babesa indartzea eta bizitoki alternatibak bermatzea.	→ Alokairuen prezioei mugak jartzea. → Iruzurrari eta abusuzko jardunei aurre egitea. → Etxebizitzaren erabilera turistikoak arautzea. → Espekulazioaren aurkako eta etxebizitzaren funtzio sozialaren aldeko neurriak aplikatzea.	→ Etxebizitza kooperatibak bultzatzea. → Etxebizitza babestuen eta alokairu eskuragarri iraunkorreko etxebizitzen formulak sustatzea. → Auzo antolaketa eta aholkularitza kolektiboa erraztea. → Lan eskubideak eta diru sarrerak indartzea, bizi-baldintzak hobetzeko.

Aukeratu lau proposamen eta horien abantailak, mugak, ondorio posibleak eta horiek gauzatzeko baldintzak baloratu.

Neurria	Zein arazo konpontzen du?	Onurak	Mugak / arriskuak	Nola eta nork gauzatu
1.				
2.				
3.				
4.				

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

16. Eranskina. Etxebizitza eskubidearen aldeko asanblada

Talde bakoitzak eragile bat ordezkatuko du: gazteria, familia langilea, etxebizitza sindikatua, hezkuntza sindikatua, auzo elkartea eta administrazio publikoa, adibidez.

Gazteria	Familia Langilea
Lehentasunak: emantzipatzeko aukera, alokairu eskuragarria, egonkortasuna, garraioarekiko hurbiltasuna. Eskaera: gazteen beharrei erantzungo dieten etxebizitza politikak.	Lehentasunak: etxebizitza ordaindu ahal izatea, oinarrizko gastuak asetzea, etxekoen ongizatea eta etxegabetzeen aurkako babesa. Eskaera: segurtasuna eta etxebizitzen prezio jasangarria.
Etxebizitza sindikatua	**Hezkuntza sindikatua**
Lehentasunak: maizterren antolaketa, etxegabetzeak geldiaraztea eta espekulazioari aurre egitea. Eskaera: eskubideak bermatzeko neurriak eta antolaketa kolektiboa.	Lehentasunak: soldatak, lan baldintzak, zerbitzu publikoak eta ikasleen eta familien bizi baldintzak. Eskaera: etxebitiza eskubidea eta langileen bizi baldintzak batera lantzea.
Auzo elkartea	**Administrazio publikoa**
Lehentasunak: auzoan bizitzen jarraitzeko aukera, zerbitzuak, bizilagunen arteko loturak eta irisgarritasuna. Eskaera: tokiko beharrak kontuan hartzen dituzten neurriak.	Lehentasunak: proposamenak eskumenekin, baliabideekin eta epeekin lotzea. Eginkizuna: proposamenak aztertzea, konpromisoak gauzatzea eta mugak justifikatzea.

Eragile bakoitzak bere lehentasunak azaldu eta hainbat neurri negoziatu beharko ditu asanbladan. Horretarako, talde bakoitzak eragile bat ordezkatzen duela kontuan izanda, osatu taldeka hurrengo eskema:

1. Premiazko neurriak zailtasunak dituzten pertsonak babesteko:
2. Egiturazko aldaketak etxebizitza duinak eta eskuragarriak bermatzeko:
3. Antolaketa eta mobilizazioa. Nola antolatuko gara eta nola eskatuko dugu neurriak betetzea?

Behin taldeetan landuta, asanblada gisa osatu eskema bera. Horretarako eztabaidak emango dira eta adostasunak bilatu:

1. Premiazko neurriak zailtasunak dituzten pertsonak babesteko:
2. Egiturazko aldaketak etxebizitza duinak eta eskuragarriak bermatzeko:
3. Antolaketa eta mobilizazioa. Nola antolatuko gara eta nola eskatuko dugu neurriak betetzea?
4. Adostasunak
5. Desadostasunak aurrerago zehazteko.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

17. Eranskina. Gogoetatik aldarrikapenetara

Talde bakoitzak, eragile bateko ordezkari gisa, azaroaren 11ko grebari lotutako kanpaina bat sortuko du: kartela, leloa, manifestua, infografia eta sareetarako argitalpena ezinbestekoak izanen dira.

Leloa: .....

Kartela:

Infografiarako aldarrikapenak:

Manifestua idazteko eskema: Zein arazo salatu nahi dugu?, Nori eragiten dio arazoak?, Zein aldarrikapen zehatz egiten ditugu/dugu?, Zein konponbide proposatzen ditugu?, Nori eskatu behar dizkiogu aldaketa horiek?, Nola antola gaitezke gure aldarrikapena zabaltzeko?

Sare sozialetarako mezua: Arazoa + aldarrikapena + proposamen zehatza (gehienez 3-4 esaldi):

.....

.....

.....

.....

.....

.....

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

18. Eranskina. Aitortutako eskubidea, bermatutako eskubidea al da?

Irakurri eta aztertu Konstituzioaren 47.artikulua, Nafarroa Garaiko etxebizitza araudia eta Euskal Autonomi Erkidegokoa. Etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea aitortzen da, eta botere publikoen esku uzten da eskubide hori gauzatzeko eta lurzorua interes orokorraren arabera arautzeko behar diren baldintzak sustatzea, espekulazioa eragozteko.

Banaka erantzuteko galderak:

→ Zer esan nahi du eskubide bat legez onartuta egoteak?

→ Zer gertatu beharko litzateke pertsona guztien eskubideak aurrera eraman ahal izateko?

→ Zer adierazlek ahalbidetuko lukete eskubide hori bermatuta dagoen jakitea?

→ Nola azal daiteke aitortza juridiko bat egotea eta, aldi berean, etxebizitza egoki bat eskuratu ezin duten pertsonak egotea?

Jarri amankomunean erantzunak eta atera ondorioa paragrafo batean, ongi argudiatuz:

"Etxebizitza eskubidea aitortzea ez da nahikoa.....

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

19. Eranskina. Etxebizitzaren azterketa ekonomikoa

Taldeka, datu ofizialak aztertu, alokairu prezioei, diru sarrerei, alokatzeko etxebizitzen kopuruari eta merkatuaren bilakaerari buruzkoak.

Erabili Nafarroa Garaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuak biltzen dituzten webguneak.

Datu bilketarako:

Adierazlea	Urtea / aldia	Lurraldea	Balioa / grafikoa	Ondorioa
Alokairuaren prezioa				
Soldatak edo diru-sarrerak				
Alokairuan dauden etxebizitzak				
Merkatuaren bilakaera				

Atera ondorioak, nola erlazionatzen da alokairuaren bilakaera langileen diru sarrerekin? Idatzi zure hausnarketa propioa 125-150 hitzetan.

Datu ofizial batzuk:

Nafarroa Garaia · Nastat. 2024KO DATUAK . Nastaten estatistikaren arabera, alokairura bideratutako 25.356 etxebizitza zeuden; hileko batez besteko alokairua 609 eurokoa zen, aurreko urtean baino % 4,6 handiagoa. Metro karratuko batezbestekoa 7,0 €/m² zen.

Euskal Autonomia Erkidegoa · Etxebizitzaren Euskal Behatokia

Kontsultatu Alokairu Merkatuaren Estatistika (EMAL) eta bilatu azken eskuragarri dagoen urtea edo hiruhilekoa. Egiaztatu kontratuen fidantzen erregistroan oinarritutako prezioak diren ala iragarkietako prezioak diren.

Gazteen emantzipazioa · Espainiako Gazteriaren Kontseilua

2025eko erreferentziako Emantzipazio Behatokiaren argitalpenak Espainiako gazteen emantzipazio tasari eta alokairuaren kostuari buruzko adierazleak biltzen ditu. Erabili estatuko testuingurua azaltzeko, ez Nafarroako edo EAEko emaitzen ordezko gisa.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

20. Eranskina. Zenbat geratzen da bizitzeko?

Alderatu bi profilak eta erantzun:

	A profila	B profila
Diru sarrera garbiak	1450 €	1900 €
Alokairua	650 €	850 €
Etxeko fakturak	120 €	140 €
Elikadura	250 €	300 €
Garraioa	60 €	90 €
Soberakinak	370 €	520 €

→ Zer esan nahi du eskubide bat legez onartuta egoteak?

→ Zein gastu falta dira aurrekontuetan?

→ Zer gertatuko litzateke gaixotasun, ezusteko (etxeko edo kotxeko konponketa bat adibidez) edo lanaldi murrizketa baten aurrean?

→ Nola eragiten dute lan prekarietateak, zaintzak eta irisgarritasunak?

→ Norbanakoaraen ahaleginaren bidez bakarrik konpon al daiteke egoera hori?

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

21. Eranskina. Diagnostikotik transformaziora

Greba eguneko aldarrikapenetan hiru eraldaketa nagusi finkatu dira.

1. **Espekulatzaileen desjabetzea** Zein egoeratan jartzen da jabetza metaketa herritarren etxebizitza beharren gainetik? Zein baliabide, babes eta kontrol beharko lirateke? Zein ondorio eta oztopo aztertu behar dira?
2. **Espekulazioaren debekua** Zein jokabide edo erabilerak jar dezake etxebizitzaren funtzio soziala arriskuan? Zein arau edo mekanismok mugatu edo eragotzi ditzake? Nola egiaztatuko litzateke neurriak betetzen direla?
3. **Banaketa arrazional eta bidezkoa** Zein irizpidek hartu behar dituzte kontuan pertsonen eta familien benetako beharrak? Nola hartu kontuan diru sarrerak, irisgarritasuna, familia egoera eta kokapena? Nola bermatu esleipen gardena eta bidezkoa?

Aukeratu eraldaketa bat eta sakondu:

→ Gure hitzetan, zer esan nahi du?

→ Praktikan jartzeko beharrezko baldintzak:

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

22. Eranskina. Berehalako neurriak eta egiturazko aldaketak

Osatu:

Konpondu nahi den arazoa:

Proposatzen den egitura aldaketa:

Berehalako neurri osagarria (hala badagokio):

Kaltetutako pertsonak eta erantzun beharreko beharrak:

Esku hartzeko gaitasuna duten eragileak eta erakundeak:

Aplikatzeko beharrezko baliabideak:

Etxebizitza benetan eskuratzea hobetzen den ebaluatzeko adierazleak:

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

23. Eranskina. Batzarra eta borroka kolektiboa

Kanpainaren plangintza:

1. Leloa (laburra, argia eta aldarrikatzailea).
2. Iruditegia edo logoa.
3. Azaldu nahi den arazoa:
4. Defendatuko den proposamen zehatza.
5. Zergatik da bidezkoa eta beharrezkoa?
6. Nori zuzendu nahi diogu mezua?
7. Zein formatutan zabalduko dugu? (kartela, infografia, bideoa, sare sozialak, pankarta...).
8. Infografiaren egitura: diagnostikoa, ebidentzia, eraldaketa, ekintza.

Kanpaina prestatzeko egiaztapen zerrenda.

- → Aldarrikapen argi bat dauka.
- → Arazoaren azalpena egokia da eta ez ditu pertsonak erruduntzen.
- → Datuak erabiltzen baditugu, iturria eta urtea jarri ditugu.
- → Proposamen zehatza eta egiturazko eraldaketa lotu ditugu.
- → Diseinua irakurgarria da eta mezu nagusia azkar ulertzen da.

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

10. Sindikatuen materiala



STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa

Azaroak 11 GREBARA!

Antolakuntza gure berme bakarra, etxebizitza eskubide unibertsala izan arte.

Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Saretik azaroaren 11ko greba orokorrarekin bat egiteko deia egiten dugu, etxebizitza eskubide unibertsalaren alde, soldaten igoeraren alde eta langileon bizi-baldintzen hobekuntzaren alde.
Egun Euskal Herrian langileok gure soldaten erdia baino gehiago baliatzen dugu alokairua edo hipoteka ordaintzeko. Azken urteetan gure soldata nominalek gora egin badute ere, langile klasea gero eta pobreagoa da, eta horren gakoetako bat da etxebizitzaren prezio itogarriena. Hala ere, langile guztiei ez die gatazka honek berdin eragiten; hala nola arrazializatuei, migratuei, emakumeei eta genero-disidenteei.

Etxebizitzaren aldeko borroka soldata berreskuratzeko borroka ekonomiko bezala ere ulertzen dugu, eta horregatik, soldata hobetzeko borrokak derrigorrez barne hartu behar du etxebizitza unibertsalaren aldeko aldarria. Horregatik da hain garrantzitsua azaroaren 11n dugun zita, patronalaren eta errentadunen katea hausteko bidean.
Hau horrela, hiru dira Euskal Herriko etxebizitza sindikatuok norabide horretan ekarri ditugun aldarriak:

Espekulatzaileak desjabetzea, oinarrizko behar bat den etxebizitza gutxi batzuen eskuetan pilatzea ekiditeko.

Espekulazioa etetea, etxebizitzei erabilera espekulatiboa eman nahi diotenen negozioa debekatuz.

Etxebizitza behar sozialen arabera antolatzea, gure beharrak izan daitezen etxebizitza politikak diseinatzeko abiapuntua, eta ez irabazietan oinarritutako merkatua.

Honetaz gain, eta egungo testuingurua kontuan hartuta, beharrezkoa iruditzen zaigu greba orokorrean egungo egoera arindu dezaketen neurri zehatz eta eraginkorrak aldarrikatzea:

Etxegabetzeen baldintzarik gabeko etetea.

Alokairuen prezioen berehalako jaitsiera aplikatzea.

Gainera, ezinbestekoa iruditzen zaigu **greba hau Euskal Herrian kokatzea**, borroka-marko propioa elikatuz eta Hego Euskal Herriko alderdi eta erakundeen ardura zuzenean seinalatuz; greba izan dadin Euskal Herriko etxebizitzaren aldeko borrokaren mugarri eta bertako etxebizitza mugimendua gorpuzteko bide.
Jakin badakigu grebara oso testuinguru konkretuan deitu dela, espainiar estatuko hauteskundeen atarian; baita batzuek zortzi urtetan etxebizitzaren negozioa blindatu besterik egin ez duen "gobernu progresista" zuritzeko baliatuko dutela ere. Horregatik, uste dugu **etxebizitzaren negozioa eta espekulazioa jomugan jartzen duten aldarriak erdigunera ekartzeko eguna izan behar duela greba orokorrak**; grebak izan dezakeen izaera elektoralista gaindituz, eta errentadunen, espekulatzaileen eta eraikuntzaren patronalaren irabaziak bermatuko dituzten diskurtsoei aurre eginez.

Garai zailak datoz, eta testuinguru honetan, uste dugu greba orokorrak etxebizitza sindikatuen eta, oro har, herri mugimendu eta klase antolakundeen gaitasuna handitzeko tresna izan behar duela. Era berean, etxebizitza unibertsalaren aldeko aldarria borroka feminista eta antirrazistatik bereizezina da.
Horregatik guztiagatik, **Euskal Herriko langileriari azaroaren 11n etxebizitzaren negozioaren aurka mobilizatzeko deia egin nahi diogu, lantokiak hustuz eta kalera ateraz.** Aldaketak behetik etorriko dira, borrokari esker, eta horretarako, antolakuntza da gure berme bakarra.



2026/2027 Ikasturtea

Etxebizitza, bermatu beharreko eskubidea

STEILASek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sareak elkarlanean sortutako programazio didaktikoa